

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua, 2019ko urriaren 18koa, Organo Ekonomiko Administratiboaren presidentea izendatzeari buruzkoa

2012ko irailaren 24an argitaratu zen ALHAOn Gasteizko Organo Ekonomiko Administratiboaren osaera, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta prozedura arautzen dituen araudia, zeinak Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 137. artikulua ezarritakoa garatzen baitu.

Aipatutako araudiaren 3.1 artikulua xedatutakoaren ildotik, Udalbatzak Ignacio Díez Unzueta Organo Ekonomiko Administratiboaren kide izendatu du gaur, 2019ko urriaren 18an, eta aldi berean kargutik kendu du Amaya Beatriz Alfonso Acebo, orain arte Organo Ekonomiko Administratiboaren presidentea, lanpostuz aldatu baita —horren ondorioz, presidentetza hutsik geratu da—.

Araudiaren 3.2 artikulua arabera, berriz, Gasteizko Udaleko alkate-lehendakariaren dekretuz izendatuko dira Organoaren presidentea eta idazkaria, hura osatzen duten kideen artetik.

Horrenbestez, hauxe:

Xedatu dut

Ignacio Díez Unzueta izendatzea Gasteizko Organo Ekonomiko Administratiboaren presidentea.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 18an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE